



26.ZIRKULARRA

AZKEN JARDUNALDIRAKO ORDUTEGI BATERATUA ETA FINALETAN ETA HORRELA ESKATZEN DUTEN PARTIDETARAKO ZELAI NEUTRALA IZENDATZEKO ARAUAK.

Donostian 2019ko Apirila.

Lehendakari agurgarria:

Honekin batera, azken sailkapenentarako eragina duten partidetzako, igoerak eta beherapenak kontutan izanda, lehiaketaren azken egunerako ordutegi bateratuak jasotzen dituen agiria eta zelai neutrala izendatzeko arauak bidaltzen dizkizuegu.

Jakinaren gainean egon zaitezten eta ondorio egokiak izan ditzan ematen dizuegu honen berri.

Adeitasunez,

**GIPUZKOAKO FUTBOL FEDERAKUNTZA
FEDERACION GUIPUZCOANA DE FUTBOL**

**Francisco Gabilondo Zaragüeta
Idazkari Nagusia / Secretario General**



AZKEN JARDUNALDIRAKO ORDUTEGI BATERATUA

2018-2019 Denboraldia

MAILA	2019/05/05	2019/05/12	2019/05/19	2019/05/26	2019/06/02
Erregional Ohorezko Maila				Lar.17,30	
Gorengoen Maila		Lar.17,30			
1.Erregionala Igoera			Lar.17,30		
Ohorezko Jubenil	Lar.17,30				
1.Jubenil Igoera			Lar.15,30		
Ohorezko Kadete	Lar.12,30				
1.Kadetea Igoera			Lar.12,30		
Ohorezko Infantil Txapeldunak			Lar.11,00		
Infantil Txiki Parte hartzea		Lar.11,00			
Emakume Erregional Ohorezkoa	Lar.17,30				
Emakume Igoera					Lar.17,30
Emakume Ohorezko Kadetea		Lar.12,30			
Emakume 1. Kadete Igoera				Lar. 12,00	



FINALETAN ETA HORRELA ESKATZEN DUTEN PARTIDETARAKO ZELAI NEUTRALA IZENDATZEKO ARAUAK.

Aurreko denboraldietan, talde partehartzaileen artean agertzen ziren desadostasunak zirela eta, arazo ugari izan dira denboraldi bukaerako finalak programatzeko orduan. Desadostasun hauek tentsio ugari erakarri zituzten taldeen artean eta, baita, hauen eta Federakundeko organo izapidegilearekin ere. Horrela, Gipuzkoako Futbol Federakundeak, Lehiaketa eta Disziplina Batzordeak esandakoari jarraituz, honako hau adierazten du:

- 1- Gipuzkoako Futbol Federazioko Kirol Lehiaketa eta Disziplinako Batzordeari dagokio zelai neutralean jokatuko diren partiden izendapena.
- 2- Zelaiaren aukeraketa eta partidaren eguna eta orduaren izendapena, Federazioko organo teknikoaren gomendioei jarraituz eta, aldi berean, herrien arteko distantzia, instalazioen erabilgarritasuna, eta beharrezko diren beste arazo guztiak kontutan izanda egingo ditu Lehiaketa Batzordeak.
- 3- Izendapen akordio hau, betebeharrezko akordioa izango da eta berehalako balioa izango du. 7 eguneko epea egongo da akordioaren aurkako errekurtsua aurkezteko eta Kirol Justiziako Euskal Batzordera zuzendu. Gorengo Epaitegira egindako errekurtsoren aurkezpenak, ez du, Epaitegiak kontrakoa esaten ez badu behintzat, izendapenaren bete behartasuna gelditzen.
- 4- Arau hauen bidez izendatutako partidara ez joatea, Euskadiko Futbol Federazioko Disziplina Araudiko 47 artikulua eta Eskola Kiroleko Disziplina arautzen duen 391/2013 Dekretuko 15.J artikulua diotenaren arabera, ez agertze gisa kontsideratuko da.
- 5- Dena den eta guzti hau kontutan izanda, talde biak eta instalazioen titularra akordio batetara iritxiko balira eta akordio hau (hiru parteek sinatutako idatzi baten bidez) Federazioko administraziora partida aurreko ASTELEHENEAN arratsaldeko 8.00 ak baino lehenago iristen bada, akordioa onartua izango da.

Idatzi honek, hartutako erabakiaren betebeharrak berariozko balioa du eta horrela jasota geratzen da.